

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZALDIBIAKO UDALA

*Zaldibiako Herri Bide Publikoen Inbentarioaren informazio publikoa.*

Zaldibiako Udalak Herri Bide Publikoen Inbentarioa egiteko erabakia hartu zuen, udal honen ondasunen inbentarioa osatzeko eta herri-jabariko ondasun higiezin guztiak Ondasunen Inbentarioan sartzeko xedez, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuaren Bigarren Xedapen iragankorrak jasotzen duen bezala.

2022ko abenduaren 27an egindako Ohiko Osoko Bilkuran honako hau erabaki zen:

— Zaldibiako Herri Bide Publikoen Inbentarioari hasierako onarpena ematea.

Halaber, eta erabakitakoa beteaz, hasierako onespeneko Dokumentua jendaurrean jartzea, 2 hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bitarte horretan edonork dokumentua aztertu ahal izango du eta egokitzat jotzen dituen alegazioak egin.

Zaldibia, 2022ko abenduaren 27a.—Eztitxu Mujika Mariezkurrena, alkatea. (235)

AYUNTAMIENTO DE ZALDIBIA

*Información pública del Inventario de Caminos Públicos de Zaldibia.*

El Ayuntamiento de Zaldibia acordó realizar el Inventario de Caminos Públicos de Zaldibia, con el fin de completar el Inventario de Bienes de este Ayuntamiento e incluir en el mismo todos los bienes inmuebles de carácter demanial, tal como recoge la Disposición Transitoria Segunda del Real Decreto 1372/1986 por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

En sesión plenaria ordinaria celebrada el día 27 de diciembre de 2022, acordó lo siguiente:

— Aprobar con carácter inicial el documento Inventario de Caminos Públicos.

Asimismo, y dando cumplimiento a dicho acuerdo se somete el documento de aprobación inicial a información pública por plazo de 2 meses, contados a partir del día siguiente al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, durante el cual podrá ser examinado por cualquier interesado y formular las alegaciones que se estime pertinentes.

Zaldibia, a 27 de diciembre de 2022.—La alcaldesa, Eztitxu Mujika Mariezkurrena. (235)